

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan gure enpresak eskaintzen duen produktuaren deskribapen sakon bat egingo dugu. Zergatik saltzen dugun produktu hau eta zerk bereizten gaituen beste enpresetatik.

Gure produktua sortzerako orduan zerbait berritzailea sortu nahi izan dugu. Gure ingurura begiratuta konturatu gara helduei bideratutako teknologia gailu oso gutxi daudela. Gaur egun, helduentzako mugikorrak botoiekin funtzionatzen dute eta funtzio oso sinpleak dituzte, baina, botoiekin denez helduei oso zaila egiten zaie erabiltzea, pantailak txikiak dira eta ez datoz bat hauen bistarekin. Horrelako egoerek beraien teknologia berriak ukatzea eta gauza askotan laguntza behar izatea ekartzen du. Arazo horri erantzuna emateko mugikor taktil sinple bat sortzea ideia ona iruditu zaigu. Pantailan gauzak oso sinpleak txertatuko ditugu eta beraiantzat erraza izango da erabiltzea, adibidez, medikuarenera joateko txanda hartzea. Horregatik beraiantzako moldatuta dagoen mugikor taktil bat egitea pentsatu dugu, beraien autonomia izateko garai hauetan ere bai.



Helduen komunikazio beharrak asetzen ditugu. Gure mugikorraren erabilera eta ulermena erraza da, gure produktuak edukiko dituen atalak helduentzat pentsatuta daudelako. Mugikor handi, sinple eta ulerterraza egin dugu, ikusi dugulako gure bezeroek arazo asko izan dituztela ohiko mugikorrekin. Mugikorra pizterako orduan kontaktuak gordetzen dituen atal bat azalduko da (mugikor baten logoarekin) eta bertan deitzeko aukera izango duzu.



Adibidez, amona batek bere bilobari deitu nahi izango balio, bilobaren argazkia aterako litzaioke eta bertan zapalduta deitzen hasiko litzaioke. Lehenengo kontaktuak larrialdi zenbakia, zure herrialdeko osasun zentroa eta gure enpresaren zenbakia izango dira. Mugikorrek beste atal batzuk izango ditu: kamera, argazki galeria eta ezarpenak. Horrelako funtzioek helduei bizitza asko hobetuko die.



Mugikorrek bi modelo ezberdin izango ditu: 15 x 7 cm-koa eta 13 x 6 cm-koa. Gehiengoak adinarengatik bista arazoak izaten dituzte, horregatik gure produktua neurri ezberdinetakoa egitea erabaki dugu. Horrez gain, kolore ezberdinetan salduko dugu: beltza, urdina eta zuria. Herrialde ezberdinetan salduko dugunez, ezinbestekoa da hizkuntza ezberdinetan saltzea: Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Portugesa, Frantsesa, Alemana, Italiara, Bulgariera, Txekiera, Kroaziera, Daniera, Suediera, Norvegiera, Greziera, Errumaniera, Turkiera eta Nederlandera.

Fisikoki oraingo mugikorren diseinu berdina edukiko du. Hau da, pantaila batek hartuko du mugikorraren aurrealdea. Atzealdean, aukeratutako kolorean gainean, gure logoa azalduko da, baita Samsung (mugikor hauek egiten dituen enpresa) enpresarena ere bai.

Cyber segurtasuna oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Helduengan geroz eta lapurreta gehiago gertatzen ari dira eta funtsezkoa iruditzen zaigu bezeroen pribazitatea errespetatzea. Spameko telefono zenbaki denak blokeatuta izango dira eta ezin izango dute helduen mugikorretara deitu. Beraien sakelakoa desblokeatzeko "Face ID" metodoa ezarriko dugu. Internetetik erosiko balute, gurekin harremanetan jarriko lirateke eta gure bezeroentzako zerbitzu zenbakira deitu ahal izango lukete.

Media Markt